

MUSIKA LEHIAKETAREN OINARRIAK

“DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENEKO ERESERKIA, 1919-2019”

Durangon egoitza duen DURANGOKO KULTURALAK “DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENEKO ERESERKIA, 1919-2019” musika lehiaketa antolatu du. Helburua da gure Klubari nortasuna emango dion eta sinbolo izango den musika-konposizioa bat eskuratzea.

Honakoak dira lehiaketa honen oinarri zehatzak:

- 1.- Edozein pertsona fisikok parte hartu dezake, nazionalitatea eta adina edozein dela.
- 2.- Parte hartzaileek nahi adina obra aurkeztu dezakete; lan originalak eta saritu gabeak izan beharko dute, ezingo dira izan beste lehiaketa batzuetako ebazpenaren zain daudenak.
- 3.- Ereserkia Euskaraz idatzita izan beharko da.
- 4.- Originaltasunari emango zaio balio berezia, baita interpretatua izateko egokitasunari ere.
- 5.- Konposizioek, gutxienez, 3 minutuko iraupena izango dute eta, gehienez, sei; eta letrak oinarri hauetako II. ERANSKIN gisa aurkeztu behar da. Estrofa eta errepikak nahi den eran konbinatu eta erabili daitezke, konpositoreak askatasun gehiago izan dezan estetikoki eta forma aldetik.
- 6.- Lanak paper formatuan aurkeztu behar dira, sinatu barik eta egilearen izen edo markarik agerian utzi barik. Lan bakoitzeko, ondoko dokumentuak bidali behar dira: partitura nagusiaren (gidoia) bost ale paperean; material sorta bat (particellak); eta aipatutako dokumentuen kopia bat formatu digitalean (CDa, USB...), eta horrekin batera, entzunezko bertsio bat MIDI edo antzeko euskarri batean. Konpositore edota egileek gutunazal baten barruan, plika bat osatuta, ondoko dokumentuak aurkeztu behar dituzte: euren datu pertsonalak, telefonoa, NANaren fotokopia eta egile edota egileen curriculum laburra. Plika bakoitza egileak aukeratutako izenarekin identifikatuko da. Baldintzak betetzen ez dituzten obrak, berehala geldituko dira lehiaketatik kanpo.
- 8.- Lanak aurkezteko epea oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da eta 2019ko irailaren 1a izango da azken eguna. Konposizioak honako helbidera bidali behar dira: “DURANGOKO KULTURALA”, Tabira kalea 62, 48200 DURANGO.
- 9.- Irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du.
- 10.- Erabakia apelaezina izango da eta 2019ko urriaren 10eko jendaurreko sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko da. Sarituak ezinezkoa badu bertaratzea, ordezkari bat baimendu ahalko du bere izenean saria hartzeko.

11.- Ereserki irabazlea DURANGOKO KULTURALAREN esku geldituko da, eta sortzailearenak izango dira lanaren egile-eskubideak.

12.- Saria hutsik gelditu daiteke epaimahaiak horrela erabakitzen badu. Halaber, epaimahaiak ahalmena izango du oinarri hauetan aurreikusten ez diren gaiei erantzuna emateko.

13.- Lehiaketa honetako Antolaketa Batzordeak eta Epaimahaiak, testuei dagokienez, ez dute parte hartzaileekin harreman batere izango, eta ez dute inolako informaziorik emango, ez bada Sari-ematearen Akta Ofizialean bildutako erabakia.

14.- Epaimahai-kideak nor diren lehiaketaren epaiaren berri ematen denean jakinaraziko da.

15.- “DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENEKO ERESERKIA, 1919-2019” musika lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar, eta beraien interpretazioa Elkarteari eta Epaimahaiari dagokie. Informazioa: info@culturaldurango.org.